

LEITZALARREKO UNAIAK

1683-1771

Zezenak plazan Goizuetan eta Leitzan
1578-2017

Patziku PERURENA LOIARTE
2018



Saiakera



Egileak, ikerlan hau burutzeko,
I Manuel Larramendi Ikerketa Saria baliatu zuen 2011. urtean.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak, berriz, Andoaingo Udaleko Kultura Lansailaren laguntza baliatzen du urtero bilduma hau osatzeko. Gainera, 2017. urtean, baita Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritzarena ere ikerlana argitaratzeko.



ANDOAINGO UDALA
Kultura Lansaila



Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza

Perurena, Patziku (1959-)

Leitzalarreko unaiak 1683-1771: Zezenak plazan Goizuetan eta Leitza 1578-2017/

Patziku Perurena Loiarde.-Andoain: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, 2018

655 or.: z-b. argk.; 22 cm.-(Saiakera; 9)

L.G. SS-0072-2018 - ISBN - 978-84-945641-2-3

1. Abeltzaintza-Leitza-Historia 2. Zezenak-Leitza-Historia

3. Zezenak-Goizueta-Historia

I. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna II. Izenburua III. Saila

636.2(460.16Leitza)(091)

791.862(460.16Leitza)(091)

791.862(460.16Goizueta)(091)

Legeak liburu hau osorik edo zatika erreproduzitzea debekatzen du, edota edozein sistema informatikoz edo bestelakoaz haren edukia biltegratzea, transmititzea, sareratztea, kopiatzea nahiz grabatzea, argitaratzailearen idatzizko eta aurretiko baimenik gabe. Liburu honen lehen argitaraldia 450 alek osatu du.

© Perurena Loiarde, Patziku

© 2018, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, argitalpenarena
Bildumaren arduraduna: Jon Unanue López.

Dr. Huizi kalea, 15-1
20140 ANDOAIN
943 300 733 / 656 782 521
Bildumaren arduraduna: Jon Unanue López.
bazkuna@larramendi.org

ekoizpena:
ERROITZ, B.M. (hedabide eta iragarbideak)
Arantzibia plaza, 4-5 behe
20140 ANDOAIN
☎ 943 300 732
erroitz@gmail.com
ekoizpenburua: Jon A. Ubeda Goikoetxea
Diseinua eta maketazioa: Maddi Trutxuelo
Azalaren diseinua: Iñaki Gozalo Erro, *Wentxi*

L.G.: SS-0072-2018
ISBN: 978-84-945641-2-3
Inprimaketa:
ITXAROPENA, S.A.
Araba kalea, 45
20800 ZARAUTZ

*“Gurea hauxe zen:
-Aida aurrera, behia!
-Isti atzera, zezen!”*

Mertxeneko Euxebiok

*“Lo más bonito es que los animalistas,
con su sensibilidad exhibicionista que
humaniza al toro y cosifica al torero,
sean antiquísimos elementos corales con su
papelón obligado en la representación”.*

Bufonia zelakoaz, Eduardo Gil Berak.

I

Leitzalarreko unaien liburua (1683-1771)

1.1.-	Nola sortu zen tentaldia.....	17
1.2.-	Liburuaz ohar batzuk.....	18
1.3.-	Behi kontuak.....	23
1.3.1.-	Txekor, xexenko / migatxo, aretxe urrux...	30
1.3.2.-	Idi eta zezen kontu batzuk.....	33
1.3.3.-	Behien alboko ardi kontuak.....	37
1.4.-	Sarobeak, ixtegiak.....	39
1.4.1.-	Beste istegi, itxola, kontu batzuk.....	45
1.5.-	Unaiburuak.....	58
1.6.-	Unaiak.....	67
1.7.-	Unaimorroiak.....	80
1.8.-	Hartz, otso, otsakume.....	86
1.9.-	Laboreak.....	93
1.10.-	Urteroko dirukontuak.....	101
1.10.1.-	Kontuak egiteko eguna, lekua.....	106
1.10.2.-	Nor eta nola biltzen ziren.....	107
1.10.3.-	Kontuak nola egiten ziren.....	108
1.11.-	“Tabla” izeneko mugasaria.....	110
1.12.-	Meza eta bedeinkazioak.....	124
1.12.1.-	Behiak bedeinkatzera Leitzalarrera.....	125
1.13.-	Otorduak.....	127
1.14.-	Eskribauak.....	130
1.15.-	Unaien beste liburu zaharragoa falta.....	136

II

Baztan, Beterri, Leitza eta Goizueta

2.1.-	Baztan.....	152
2.2.-	Gipuzkoako Beterrikoak.....	160
2.3.-	Leitza.....	171
2.4.-	Migel Perurena unaiaren ondorekoak (Irurita 1663, Leitza, Goizueta, Leitza 2016).....	181
2.4.1.-	Migel Perurena Arizko larrean unai (1710-1722).....	185
2.5.-	Aretxeak eta “auriche”ak.....	194
2.6.-	Behien gaitza (1772-1779).....	205
2.6.1.-	Behi izurritea Leitza, 1774.....	205
2.6.2.-	Behi izurritea Goizuetan.....	212

III

Abeltzain kontuak, hamaika...

3.1.-	Auzi batzuk Akan eta Arizko mendian (1515-1685)	217
3.1.1.-	Iradizabaldik Leitzaurreraino (1515)	222
3.1.2.-	Bahikuntza haundiskoak egiten leitzarrei beruetearrek (1550)	224
3.1.3.-	Arizko larrea hartu errentan beruetearrei leitzakoek (1591)	226
3.1.4.-	Ezkurrako jaunari espa beruetek eta Leitzak Akango sarobean (1619) ..	228
3.1.5.-	Akan auzitan, Beruetek eta Ezkurrako jaunak (1635)	233
3.1.6.-	Akango larrea erosi leitzarrek (1658)	242
3.1.7.-	Leitzegiko soroa muturkatzen zerriek behientzako bazka guzia hondatuz (1685)	262
3.2.-	Ganadua Leitzan, Udal artxiboko kontu liburuetan (1568-1746)	265
3.2.1.-	Ganadu kontuak 2. liburuan (1568-1576)	265
3.2.2.-	Ganadu kontuak 3. liburuan (1577-1595)	270
3.2.3.-	Ganadu kontuak 5. liburuan (1596-1600)	282
3.2.4.-	Ganadu kontuak 6. liburuan (1601-1614)	290
3.2.5.-	Ganadu kontuak 8. liburuan (1615-1646)	294
3.2.6.-	Ganadu kontuak 9. liburuan (1650-1671)	306
3.2.7.-	Ganadu kontuak 15. liburuan (1699-1728)	319
3.2.8.-	Ganadu kontuak 20. liburuan (1729-1746)	333
3.3.-	Areso eta Leitza abeltzain (1579-1666)	359
3.3.1.-	Goiburuko oloak jan behiek (1579)	359
3.3.2.-	Domingo Urgoitiri enbargoa (1587)	360
3.3.3.-	Ipizpikunekoe testamentua (1587)	363
3.3.4.-	Petri Alfaro unaiak "txubia" nahi (1588)	372
3.3.5.-	Landazain kontuak (1607-1656)	375
3.3.5.1.-	Landak, alorrak	379
3.3.5.2.-	Landazainak	381
3.3.5.3.-	Landetako itxituk, atekak, langak, zubik	382
3.3.5.4.-	Laboreak	385
3.3.5.5.-	Arbia	385
3.3.5.6.-	Artatxikia	386
3.3.5.7.-	Gariak	387
3.3.6.-	Ardiak zor Joanes Aranaldekoak (1612)	388
3.3.7.-	Urnietan unai, Migel Oieregi (1625)	389
3.3.8.-	Adunako Zabalaren behiak Leitzalarren (1623-27)	389
3.3.9.-	Lupetzak hildako behia zulora (1635)	393
3.3.10.-	Joan Perez Oiartzabal oiartzuarrak bi behi falta (1638)	397
3.3.11.-	Hamabi behiren tratua berritu Iberok Leitzalarrean bertan bazkatzeko (1639)	401
3.3.12.-	Almortzako behiak Eskibarren (1641)	402

3.3.13.- Pedro Berekoetxea Aizaranen unai (1645).....	404
3.3.14.- Bi unai izendatzen urtero Areson (1650).....	405
3.3.15.- Bi behik hogeitalau dukat (1652).....	407
3.3.16.- Behiak lautik batean zaintzeko ohitura (1656).....	408
3.3.17.- Aresoko Elbarren auzoan, unaia izendatu (1659).....	411
3.3.18.- Tolatxeneko andrearri idia zor Malkorra orexarrak (1660).....	414
3.3.19.- Aresoko Joanes Txubia unaiari zorrak (1666).....	417
3.4.- Ira eta iraxigorra Leitzaldean (1699-1742).....	419

IV


Zezenak plazan Goizuetan eta Leitzan (1578-2017)

4.1.- Goizueta: zezenak plazan (1601-2017).....	439
4.1.1.- Mertxeneko betizuak.....	491
4.1.2.- Iñaki Azkune adituari, hirulau galde.....	500
4.1.3.- D. Saturnino mujika apaizak Amabirjinetan Peroneko balkoitik ateratako argazkiak (1960-1968).....	504
4.1.4.- Zezenak Goizuetako plazan.....	510
4.2.- “Toroak” Leitzan, bi plazetan (1578-1947).....	546
4.2.1.- Zezen kontuak 15. liburuan (1699-1728).....	554
4.2.2.- Zezen kontuak 20. liburuan (1729-1746).....	559
4.2.3.- Zezen kontuak 23. liburuan (1747-1771).....	568
4.2.4.- Zezen kontuak 33. liburuan (1772-1786).....	574
4.2.5.- Zezen kontuak 38. liburuan (1787-1808).....	579
4.2.6.- “Toroak” atzenaldiko hasieran (1947).....	586
4.2.7.- Ihes egindako zezenen kontu batzuk (1947-2000).....	595
4.2.7.1.- Calderon “bakeroak” lazo harrapatu “toroa” (1967).....	599
4.2.7.2.- Ihes egindako zezen gaiztoa Urbietara bildu (1976).....	605
4.2.7.3.- Lontxo Urroz eta Bixente Azkarate “txikittu” zezen gaiztoak eskapa zihola (1999).....	607
4.2.7.4.- Bixente Azkarate “panaderoak” berak esandakoak.....	611
4.2.8.- Jesus Mari Vicente Otin, zaletu amorratua.....	615
4.2.8.1.- Zakuaren erabilerak aparteko aipamena merezi.....	621
4.2.8.2.- Animaliak plazara: astoak, zaldiak, mandoak, zakurrak.....	622
4.2.8.3.- “Limonito de Beruete”, kaparekin trebe (1978-81).....	624
4.2.8.4.- Joxemari “Pakona”-ren atarramentu eta ateraldi batzuk.....	625
4.2.9.- Zezen kontuk argazkitan. Juan Mari Ulazia (1978-1988).....	631
Epilogo.....	651

SARRERA

Lan honek, labur esan, **trilogia** baten aurreneko zatia jasotzen du. Azalpenetan luzatu gabe, honatx hiruen sinopsia. **AURRENA**: eregimen zaharreko jauntxoen **sarobe/beh/unai bazkatze sistema zaharraren bukaera**, neurri haundi batean burniolen gainbeherarekin bateratsu gertatu zena; **BIGARRENA**: akabera honek aldi berean ekarri zuen herri mazelatako **artalurren eta baserrien sorrera**, hasieran herriko etxejaunek bideratu zutena, batez ere artoaren iraultzak liluraturik, baina gerora maister jende bigarren maila samarreko batek gorpuztu zuena; eta **HIRUGARRENA**: herri inguruetan gertatu zen baserri/luberrien espantsio horren ondoren, haratagoko goimendietan behia urritu eta ardia gailentzeak ekarri zuen **ardiborden sorrera**. Nolabait esan, elkarren orpoz orpo gertatu ziren aldaketa horien **aurreneko zatia** da liburu honetan sartu dizudana, betiere **Leitza ardatz** duela.

LEITZALARREKO UNAIK: Leitzako udal artxiboan aurkitu nuen “**Cuentas de Vaqueros años 1683 á 1771**” liburuak ematen dio hasiera esku artean duzun lan honi. Udal liburua bururen buru aztertu, eta gairik gai desglosatzea izan da nere lana, gaurko irakurleak orduko usuarioaren berri errazago jaso dezan. Unaien liburu honek, beste gauza askoren artean erakusten digu, **Baztango eta Gipuzkoako Beterriko jauntxoek** nola ekartzen zituzten beren behiak **Leitzalarreko sarobeetara**, eta usuario horrek nola sortzen zuen hainbeste herriren arteko giza harremana, mutur batetik bestera, **Azpilikuetatik hasi** eta **Igeldorainoko guzian**.



Mende bete eskas (1683-1771) hartzen duen unaien liburu honek, **Leitzalarre** zizun **ardatz**, eta bereziki **Urdola** eta **Sarobeberrri** izeneko sarobeak. Horra zergatik bataiatu dudan liburu osoa **LEITZALARREKO UNAIAK** izen nagusiarekin. Uste izan baitut titulu honetxek omentzen dituela hobekien Gipuzkoako **Beterretik** eta **Baztandik** etorritakoekin batera, **Leitzan bertakoak** ere.

Ez dut, halere, hemen aipatu gabe utzi nahi, liburu honen aurreko beste senide zaharra, **Leitzako artxibotik falta** dena. Nik uste, **1595-1682** urte bitartetsua hartuko zuela unaien liburu hark; beste mende bete atzerago, alde aldera. Ez dakit nola galdua izanen den; baina bazela? Zalantzarik ez!... Liburu honetako kontuen ondotik sartu dudan **UNAIEN BESTE LIBURU ZAHARRAGOA FALTA** izeneko ikerlan osagarria ikustea aski..

Gero, beste askoren artean, bat behar eta, mende beteko giza harreman oparo honen lekuko, **Iruritako Perunea etxetik** unai etorritako **Migel Perurenaren ibilerak** sartu dizkizut. Ez baitzen alferrik gure **Iñaki Perurena** famatuaren odoleko. Bai bai, harrijasotzaile ez ezezik, **euskal labeldun zekor hazle** eta **harakin** ere baden **Iñaki famatuak** ere, Baztandik Leitzalarrera etorritako unai harekintxe finkatu zituen lehen erroak Leitzan.

Ondoren, **Aretxeak eta Auricheak** izeneko artikulu fina dator, nire iduritan, euskal filologo zenbait kilikatuko duena. Honen ondotik, **BEHI IZURRITEAK (1772-1779)** **Leitzan eta Goizuetan utzitako arrastoak** jaso dizkizut, tartean **Berastegiari batek euskaraz idatzitako erremedioa** ere sartuz. Uste baitut, izurrite honek, ederki markatzen duela, unaien azken errematea eta artzaien gailentzea.

Hurrena, **AUZI BATZUK AKAN ETA ARIZKO MENDIAN (1515-1685)** izeneko saila dator, Beruete aldeko **bazkaleku bikain** honek aspaldi haunditik izan duen estimua eta eragina nola edo hala erakutsi nahian. **Leitza-**

larrera ez ezik **Arizko larrera** ere ekartzen baitziren urruti askotik behiak udarako. Inguruko herri mugakideekin izandako istiluak eta bahikuntzak ere ez dira gutxi; edo **Ezkurreko Jaunak** behiala **Akango larrea** erosi zuenetik sortutako espak; edo **beruetearren bahikuntzekin haserretu**, eta 250 metro honuntzagoetik mugaz muga **leitzarrek 1729an egin zuten pareta famatu hura**, egundaino gorde dena, inguruko herrietan eragin zuen marmarra zela medio sortutako “**fanfarroi**” sona bezalaxe.

Honen ondotik, udal artxiboko kontu liburuak aztertu dizkizut, banan banan, Job sailak baino pazientzia haundiagoarekin, jakinik Leitzako ganadu kontuak xehero jakiteko ezin bestekoak nituela. Horretxegatik **GANADUA UDAL ARTXIBOKO KONTU LIBURUETAN (1568-1746)** izeneko saila. Hortik aurrerakoak artzaintzaz ariko naizen libururako utziz. Mugaz muga, badituzu hor mila datu tiki, orduko ganadu kontuak ikasi nahi izatera.

Liburuko lehen gai nagusia eta hirugarren atala, **ARESO ETA LEITZA ABELTZAIN (1587-1666)** izeneko sailak ixten du, ez udal artxiboko kontu liburuetan, ez erregimen zaharreko “*libro de mayoralia*” delakoan sartzen diren auzi tiki batzuk jasotze aldera, batik bat, Leitzan bertako udal artxi-boan indexatuak dauden protokolo notarial solteak aztertuz; nahiz kontu haundiak ez izan, hagitz datu politak ematen baitituzte, orduko **Aresok** eta **Leitzak** behi eta unai kontuok nolatsu bizi zituzten ikusteko. Besteak beste: **Areson bi unai** nola izaten ziren, auzo bakoitzeko bana, eta gisa berean **Leitzan: herriko hiru auzoetan bana**.

Luburuko bigarren gai nagusia, eta laugarren atala osatzen duena, ordea, nahiz larrabehien eta unaien ondorio zuzena izan, guztiz bestelakoa duzu: **ZEZENAK PLAZAN GOIZUETAN ETA LEITZAN (1578-2017)**. Egia esan, aurrenean ez nuen inolako asmorik, gai hau hemen sartzeko, baina, gero pentsatu nuen, ezin nuela bazterrera utzi **plazako zezenen gaia**, nolabait esan, **unaien lana festa bihurtu** duen **jokorik zaharrena eta errotuena** izan baita gure herrietan, menderen mendetatik. Aurrena ahaztu eta gero gehisko liluratu, behar bada: izan ere, larrabehiez eta unaiari den ikerlan batek izan zezakeen bukaerarik ederrena zela ikusi bainuen **plazako zezenfesta**. Baina argialdi horrek Leitzalarretik **Anizlarrera** eramanez, eta horregatik **GOIZUETA: ZEZENAK PLAZAN (1601-2017)** izeneko ikerlana, honetan **Leitzak** ez bezalako sona izan duela jakinik Goizuetak: “*Goizuetan badirade zezenak Espainian diraden hobenak/*

zizti ti zazta ezpatarekin hiltzen ez direnak”. Aspaldi haundiko usuario honi ahozko berotasuna eman nahian, **Mertxeneko Antton Eskudero** goizuetarrari egin diot elkarrizketa, bizi guzia betizu eta zezen artean egina dela ongi jakinik; eta baita gai honetan maisu dugun **Iñaki Azkune** zestoarrari ere, neure zalantzak zuretzat ere argitu nahian.

Halaxe berean jaso dizkizut **Leitzan** ahoz aho, **1801 urteaz gerozko hutsaldiaren ondoren, 1947an berriz hasi ziren “toroak”** eta gerozkoak jokatu zireneko kontuak ere, paper zaharretako letra mutuari arnas berri emateko, eta orain besterik ez nuke falta, ergelen batek gaizki hartzea hain zinezkoa den “toro” kontu hori.

Ez, **plazako zezen kontu** honek ere ez dizu galtzekorik, batez ere, egun **galtzorian** bezain **pilpilean** den gaiari, bertatik bertako datuok eskuan, azken epaia fin samar emate aldera.

Eta honekin guziarekin zer erakutsi nahi dudan?... Begira aurrena aurkibidea, leitu gero datu ttikiz datu ttiki liburu guzia, eta atzenean EPILOGOAn esanen dizut, xuhur eta labur, deus gehiago esan beharrik badudala iruditu bazaizu.

LABURDURAK

- AL: *Aio Leizte! Leitzako euskararen hiztegia*, Mikel Olano, 2005.
- ALH: *Aresoko eta Leitzako hizkerak, bertako hitz eta hiztorian barrena*. Mikel Olano, 1998.
- CADP/IEAK: *Catalogo del archivo diocesano de pamplona/ Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboko Katalogoa*
- FPI: *“La familia Perurena de Irurita (1545-1941)” Ignacio Perurena Borobia. San Sebastián, 1992*
- GAO: *Gipuzkoako Artxibo Orokorra*
- GBGB: *Goizuetan bada gizon bat*
- GDZ: *Goizuetako dokumentu zaharrak (1324-1918)*
- GEI: *Goizuetako etxeen izenak*
- GEO > XX: *La ganadería en Oiartzun hasta comienzos del siglo XX* Álvaro Aragón Ruano. Oiartzungo Udala, 2013
- GGAR: *Ganadería guipuzcoana durante el antiguo régimen* Álvaro Aragón Ruano. EHU/UPV, 2009
- GUA: *Goizuetako Udal Artxiboa*
- HX: *Hilen Xarma liburua*
- LAZ: *Leitza Argazki Zaharretan*
- LEE: *Leitzako Errege Erreginak liburua*
- LMT,15: *Leitzako Mapa Toponimikoa, 2015* Sean Joxemiel Elosegik eta Pablo Feok argitaratua
- LUA: *Leitzako Udal artxiboa*
- NAH: *Nafarroako Artxibo Handia*

